

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Donostiako Udaleko talde popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, ARAUDI PROPOSAMEN hau egiten du ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALERAKO.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu taldeak ordenantza fiskalak proposatzen dituenean, helburu batzuk eta estrategia bat ezartzen ditu, betetzeko. Tasa edo zerga baterako hobariak proposatzen dituenean, hiriarentzat onak iruditzen zaizkion herritarren zenbait jarrera edo ekimen sustatzen edo saritzen ari da. Hala, familia ugarietako hobariak ematen zaizkienean, familia batzuen ahalegina saritzen da, horrek, epe luzera, hiriarik mesede egingo diolako. Gauza bera gertatzen da ingurumenaren eragin positiboa duten ekintzei hobariak ematen zaizkienean.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzeko ordenantza fiskalaren 11.3 artikulua honela dio, hitzez hitz:

Zergaldi bakoitzean ezingo da hobari bat baino gehiago izan inoiz ere.

Horrek, de facto, etxeko energia hobetzen inbertitzeko pizgarria kentzen die familia ugarietako edo nekazaritza kooperatibei, ez baitute hobaririk lortuko horregatik.

Horrek neutralizatu egiten du legegileak lortu nahi duen ondorioa, eta eraginik gabe uzten hark bultzatu nahi dituen gizarte aldaketak.

Hau proposatzen dugu:

11.3 artikulua kentzea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzeko zerga ordenantzatik.



▶ PP Talde Politikoa
Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián



Donostia, 2012ko abuztuaren 1a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea